T 72.- Sendian. Altan/En alta en Sendian

Eskualdea/ Comarca	Altan 2017/12/31n		
	Gizon/ Hombre	Emakume/ Mujer	Guztira/Total
Bidasoa	52	84	136
Debarrena	44	80	124
Debagoiena	46	94	140
Donostialdea	184	302	486
Goierrri	69	136	205
Tolosaldea	36	57	93
Urola Kosta	77	134	211
Gipuzkoa	508	887	1.395

2017an ondoren zehazten diren jarduerak egin dira:

T 73.- Sendian. Jarduerak/Sendian. Actividades


Jarduerak/Actividades	Parte hartzaileak/ Participantes	Saioak-egonaldiak-kurtsoak/ Sesiones-estancias-cursos
Laguntza psikologikoa. Saioak/ Ayuda psicológica. Sesiones	700	184
Eguneko zentroetako egonaldiak/ Estancias en centros de día	120	754
Formakuntza. Kurtsoak/Formación. Cursos	215	20
Laguntza taldeak. Sesiones/Grupos de apoyo. Sesiones	164	357
Guztira/Total	1.199	1.315

2.2.4.7.- Programa Sendian

El Programa Sendian es un programa que agrupa un conjunto de recursos de apoyo a las familias que atienden en su domicilio a personas mayores con dependencia. Incluye cursos de formación, grupos de autoapoyo, de apoyo psicológico, y atención diurna durante los fines de semana y festivos.


Hay **1.395** personas en alta en el programa.

G 124.- Sendian altan sexuka/Sendian en alta por sexo



Durante 2017 se han realizado las siguientes actividades que se especifican a continuación.

G 125.- Sendian. Formakuntza. Kurtsoak eta parte hartzaileak/Sendian. Formación. Cursos y participantes



2.2.4.8.- Arreta Goiztiar Zerbitzua

Arreta goiztiar zerbitzua da 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiartekoei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa. Diziplinarteko ikuspegi batetik begirata – Osasuna, Hezkuntza eta Gizartea–, helburutzat dauka erantzutea, ahalik eta lasterren, eta osotasunean, garapenean nahasmenduak dituzten edo haiek pairatzeko arriskua duten haurren beharizan iragankor nahiz iraunkorrei.

2017an **420** haur artatu dira guztira, hau da, aurreko urtean baino %39 gehiago; eta hori, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa, abian jarri izanak bultzatu du, ezbairik gabe.

Hona, segidan, urtean zehar artatu diren pertsonen banaketa, sexuaren arabera, eta izan duten bilakaera:

T 74.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak eskualdeka / Atención temprana. Personas atendidas por comarca

2017. Arreta goiztiarra/Atención temprana			
Eskualdea/ Comarca	Artatutako pertsonak/ Personas atendidas		
	G/H	E/M	G/T
Bidasoa	15	20	35
Debabarrena	24	12	36
Debagoiena	37	19	56
Donostialdea	131	71	202
Goierri	16	11	27
Tolosaldea	13	4	17
Urola Kosta	23	12	35
Zehaztu gabe/Sin especificar	6	6	12
Gipuzkoa	265	155	420


2.2.4.8.- Servicio de atención temprana

El servicio de atención temprana engloba un conjunto de intervenciones, dirigidas a la población infantil de 0-6 años, a sus familias y al entorno, que, desde una perspectiva interdisciplinar sanitaria, educativa y social, tienen por objetivo dar respuesta, lo más pronto posible y con carácter integral, a las necesidades transitorias o permanentes que presentan los niños y niñas con trastornos en su desarrollo o con riesgo de padecerlos.


El número de niños y niñas atendidas durante el año 2017 ha sido de **420**, lo que supone un incremento del 39% respecto al año anterior, sin duda motivado por la puesta en marcha del Decreto 13/2016, de 2 de febrero, de intervención integral en Atención Temprana en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La distribución por sexo así como la evolución de personas atendidas durante el año se muestra a continuación.


G 126.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak sexuka / Atención temprana. Personas atendidas por sexo



G 127.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak populazioarekiko 0-6/ Atención temprana. Personas atendidas respecto a población 0-6 (tasa*1000)




G 128.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak adin tarteka / Atención temprana. Personas atendidas por tramos de edad




Arreta goiztiarra jaso duten haurren **%56** ez dago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan baloratua, eta **%84a** ezta desgaitasun baremoan ere.

El **56%** de las niñas y niños intervenidos en atención temprana no están valorados de BVD y el **84%** tampoco de discapacidad.

G 129.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak MBBgraduka / Atención temprana. Personas atendidas por grado BVD



G 130.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonak desgaitasungraduka / Atención temprana Personas atendidas por grado discapacidad



Bukatzeko, 2016. urtearekin alderatuta, artatu diren pertsonen kopuruak **%39** egin du gora.

Por último, el número de personas atendidas, ha experimentado un aumento del **39%** respecto a 2016.

G 131.- Arreta goiztiarra. Artatutako pertsonen bilakaera/ Atención temprana . Evolución de personas atendidas



2.2.4.9.- Bizimodu independentea babesteko zerbitzua


Bizimodu independentea babesteko zerbitzua bizi-programa independentean oinarrituta egituratu da, eta desgaituak dauden eta beren Bizitza Plana Independentea zuzenean ezin kudeatu duten pertsonen zuzendua dago; hau da, adimen desgaitasunak edota gaixotasun mentalak eragindako mugak dituzten eta, ondorioz, autonomiaz moldatzeko eta erkidegoan parte-hartze aktiboa izateko besteren laguntza behar duten pertsonen zuzendua.

Tutoretza eta konpainia egiteko ekintzen multzo antolatu eta koordinatu da; laguntza ematea du helburu, pertsona jada bakarrik edo modu independentean bizi denean, edo hala bizi nahi duenean, hala nola bikotearekin edo beste pertsona desgaituekin edo gaixotasun mentala dutenekin bizi denean. Laguntza-sistema hau modu dinamikoa eta malgukoa ematen da, bakoitzaren premietara egokituta.

2017an **42** pertsona artatu dira, 2016ean baino %31 gehiago.

2017ko abenduaren 31n zerbitzu honen erabiltzaileak **39** pertsona ziren, honela banaturik.

G 132.- Bizimodu independentea. Artatutako pertsonak sexuaren arabera/ Vida Independiente. Personas atendidas por sexo



2.2.4.9.- Servicio de apoyo a la vida independiente


El servicio de apoyo a la vida independiente se articula a partir de un programa de vida independiente dirigido a personas con discapacidad que no pueden gestionar directamente su Plan de Vida Independiente debido a las limitaciones derivadas de su discapacidad intelectual y/o enfermedad mental y que tienen necesidades de apoyo para su desenvolvimiento autónomo y su participación activa en el entorno comunitario.

Consiste en un conjunto organizado y coordinado de acciones de tutelaje y acompañamiento que les ofrece apoyo cuando ya viven de manera independiente o desean hacerlo solas, en pareja o conviviendo con otras personas con discapacidad y/o enfermedad mental. La prestación del sistema de apoyos es dinámica, flexible y adaptada a las necesidades de cada persona.

En 2017 han sido atendidas **42** personas, un 31% más que en 2016.

A 31-12-2017 había **39** personas en este servicio, con la distribución que se muestra a continuación.

G 133.- Bizimodu independentea. Artatutako pertsonak desgaitasun graduaren arabera/ Vida Independiente. Personas atendidas por grado de discapacidad



Pertsona horietatik **%64ak**, 33-64% bitarteko minusbaliotasuna du.

El **64%** de las personas tienen un grado de minusvalía entre 33 y 64%.


Lurraldeko banaketari gagozkiola, Urola Kosta da biztanleriaren proportzioan eskualderik adierazgarriena; abenduaren 31n, zerbitzua jasotzen zuten **39** pertsonetatik 16 eskualde horretakoak dira.

En cuanto a la distribución territorial, la comarca más representada respecto a su población es la Donostia, con 16 personas de las **39** que reciben el servicio a 31-12-2017.

Azkenik, adinari dagokionez, 45 eta 54 urte bitartekoak dira artatutako pertsonen **%36**, %31ak 45 eta 54 urte bitartekoak dira eta azkenik, %13, 35 urte baino gutxiago dute.

Por último, en cuanto a la edad de las personas atendidas, el **36%** tiene una edad comprendida entre los 45 y los 54 años, un 31% más de 55 años y un 13% son menores de 35 años.

G.135.- Bizitza Independientea. Artatutako pertsonak adin tarteka/Vida independiente.- Personas atendidas por rango de edad





2.2.4.10.- Bizimodu independentea babesteko programa

Bizimodu independentea babesteko programa bizi-programa independentean oinarrituta egituratu da, eta desgaitasun fisikoa izanik besteren laguntza behar duten pertsonen zuzendua dago.

2017an, programa honetan **37** pertsonen parte hartu dute; horietatik %60, gizonezkoak.

Abenduaren 31n, **35** pertsona zeuden programa honetan.

2.2.4.10.- Programa de apoyo a la vida independiente

El programa de apoyo a la vida independiente se articula a partir de un programa de vida independiente, dirigido a personas con discapacidad física que tienen necesidades de apoyo.

En 2017 han tomado parte de este programa **37** personas, un 60% de ellas hombres.


A 31-12-2017 había **35** personas en este programa.

2.2.4.11.- Tutoretza

Judizialki ezindutako pertsonak babesten ditu Zerbitzu honek, badin eta ez badute familia laguntzarik, hau da, beren eskubideak defendatuz eta beren ondasun materialak kudeatuz. Hurkoa eta Atzegi fundazioekin sinatutako hitzarmenen bidez eskaintzen da zerbitzu hau.

2017an, 580 pertsona egon dira tutoratzapean; horietatik %52, gizonezkoak.

G 134.- Tutoretza. Arreta Sexuka/Tutela. Atención por sexo




2.2.4.11.- Tutela

Es un servicio que consiste en velar por las personas incapacitadas judicialmente, defender sus derechos y administrar sus bienes materiales cuando estas personas carezcan de apoyo familiar. Este servicio se desarrolla mediante convenios con las fundaciones Hurkoa y Atzegi.

En 2017 se ha tutelado a **580** personas, un 52% de hombres.

G 135.- Tutoretzapean dauden pertsonen profila/
Perfil de las personas tuteladas



2.2.5.- HAURREN ETA NERABEEN BABESEKO ZERBITZUA

2.2.5.1.- Haurren babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua

Zerbitzu honen helburua hau da: adingabe bat ustez babesgabetasun-egoera larrian dagoela jakinarazteko erakunde, profesional, elkarte, partikular eta abarrek egindako jakinarazpenak jasotzea; babesgabetasun-egoera larriaz ulertzen da adingabeek beren ongizatean galera nabaria pairatzea, gurasoek edo legezko arduradunek arduragabekeriak jokatzeko dutelako edo tratu txarrak ematen dizkietelako. Horrez gain, eta jakinarazpena jaso eta gero, balorazio-prozesu bat egiten da, susmoen egiazkotasuna, larritasun-maila zein babesgabetasun-egoerari lotuta egon daitezkeen arazoak egiaztatzeke, eta, azkenik, esku hartzeko beharrak zehazteko asmoz, eragindako adingabeen babesua eta ongizatea bermatu ahal izateko.

Babesgabetasun-egoerak 3 tipologiatan banatzen ditugu:

- Lurraldean erreferentziarako helduak dituzten haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoeraren berri emateko jakinarazpenak. Hauek dira adingabeen arduradunen ez-betetzetatik edo betetze desegokiztat hartzen diren egoerak: tratu txar fisikoa, abandonu fisikoa, tratu txar emozionala, abandonu emozionala, sexu-abusua edo 2017ko maiatzaren 9ko 152 Dekretuan, Balora tresnan, jasota dauden beste egoera batzuk

2.2.5.- PROTECCIÓN A LA INFANCIA Y A LA ADOLESCENCIA

2.2.5.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la desprotección infantil

La finalidad de este servicio consiste en recibir aquellas notificaciones realizadas por organismos, profesionales, asociaciones, particulares, etc. en las que se considera que una persona menor de edad se encuentra en situación de grave desprotección, entendiéndose esto como aquellas situaciones en las que sufre un menoscabo importante de su bienestar debido a actitudes negligentes o maltratantes por parte de sus progenitores o responsables legales. A su vez, una vez recibida esta notificación, se trata de llevar a cabo un proceso de valoración dirigido a confirmar su veracidad, el nivel de gravedad, los problemas que pueden estar asociados a la situación de desprotección y, finalmente, establecer las necesidades de intervención para poder garantizar la protección y bienestar de la persona o personas menores de edad afectadas.

Las tipologías de desprotección son las 3 siguientes:

- Notificaciones de situaciones de desprotección infantil de niños, niñas y adolescentes que tienen personas adultas de referencia en el Territorio. Situaciones consideradas como incumplimiento o inadecuado cumplimiento de los deberes de protección por parte de los responsables de una persona menor de edad: maltrato físico, abandono físico, maltrato emocional, abandono emocional, abuso sexual, u otros supuestos contemplados en el Decreto 152/2017, de 9 de mayo, Instrumento Balora.

- Adingabe arau-hausleei buruzko jakinarazpenak. Kategoria honen barruan sartzen dira Adingabeen Fiskaltzak igortzen dituen espedienteak, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen 5/2000 Legeak xedatutakoari jarraituz; horren arabera, arau-hausleak diren eta 14 urtetik beherakoak diren edo, Fiskaltzak egokitzat jotzen duenean, adin horretatik gorakoak diren adingabe guztiak Foru Aldundira bideratzen dira, erakundeak egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzan.

- Notificaciones de Menores infractores. En esta categoría se incluyen las remisiones de expedientes por parte de la Fiscalía de Menores de acuerdo con la Ley 5/2000 de Responsabilidad Penal de los menores, por la cual, todos aquellos casos de niños, niñas y adolescentes infractores cuya edad esté por debajo de los 14 años y aquellos que, estando por encima de esta edad, la Fiscalía lo considere oportuno, son remitidos a esta Diputación Foral para que adopte las medidas que considere pertinentes.


- Familia erreferentziarik ez duten atzerritar adingabeak zerbitzuan sartzeko jakinarazpena Europako Erkidegotik kanpoko herrialdeetakoak diren adingabeak dira, senideen edo arduradunen laguntzarik ez dutenak.

- Notificaciones de ingreso de Menores extranjeros sin referentes familiares. Se trata de personas menores de edad originarias de países extracomunitarios que no cuentan con acompañamiento de ningún familiar o responsable.


2017 urtean **1.121** desbabes jakinarazpenak egon dira, 971 adingabe eta 790 famili inplikatuak egon dira.

En 2017 ha habido **1.121** notificaciones de desprotección, estando implicados 971 niños y niñas y 790 familias

G 136.- Notifikazio mota/Tipo de notificación



G 137.- Notifikazio kopuruen urtez-urteko bilakaera/Evolución del número de notificaciones por años



2.2.5.2.- Adingabeentzako egoitza-zentroak

Adingabeentzako egoitza-zentroak elkarbitza zentroak dira, adingabeei egoitza-harrera egitera bideratuak, halakotzat harturik izaera administratibo edo judizialeko zaintza. Neurri horren helburua da haur eta nerabeei arreta integrala ematea, egoitza ingurunean, beren premia materialak, afektiboak eta hezkuntza arlokoak familian bertan bete ezin direnean.

Egoitza harrera aldi baterako izaten da ohikoan; horrela bada, adingabea bere familia biologikora itzultzea edo beste neurri alternatibo batzuetara bideratzea izaten du helburu –familia harrera edo adopzioa, esaterako–, baina, egoitza-harreran dagoen bitartean, ahal bada, lotura familiarak mantentzen saiatuz, adingabearentzat kaltegarria ez bada behintzat.

Helburu nagusia erabiltzaileari babes eremu bat emata da, garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia izan dezan. Xede horri begira, adingabearen premiei modu egoki eta eraginkorrean erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza eskura jarri behar dira zerbitzu horren esparruan.

Aurrerago zehazten den bezala, egoitza-harrerako baliabideen jarduna zentroetako hezitzaile taldeek ematen duten arreta programa sorta batekin osatzen da (laguntza soziosanitarioko programa, Anothe programa, Eskutik programa, Crono programa eta Izeba programa).

2.2.5.2.- Centros residenciales para personas menores de edad

Los centros residenciales para personas menores de edad son centros de convivencia destinados al acogimiento residencial de personas menores de edad, entendiéndose por tal medida alternativa de guarda, de carácter administrativo o judicial, cuya finalidad es ofrecer una atención integral en un entorno residencial a niños, niñas y adolescentes, cuyas necesidades materiales, afectivas y educativas no pueden ser cubiertas en su propia familia

Habitualmente, el acogimiento residencial tiene carácter temporal y, como tal, trata de orientarse bien hacia el retorno a la familia biológica, bien hacia medidas alternativas como el acogimiento familiar o la adopción, trabajando, siempre que sea posible y no perjudicial para la persona menor de edad, por mantener los vínculos familiares durante la estancia en acogimiento residencial.

El objetivo básico es ofrecer a la persona usuaria un espacio de protección que le permita un adecuado desarrollo afectivo, psicológico, intelectual y social. Y, a tal fin, en su marco, debe facilitarse el acceso a los recursos y al apoyo que resulten precisos para responder adecuada y eficazmente a sus necesidades.

La intervención de los recursos residenciales se complementa con una serie de programas dirigidos a apoyar la atención que ofrecen los equipos educativos desde los centros (programa de apoyo sociosanitario, programa Anothe, programa Eskutik, programa Crono y programa Izeba), como se explicita más adelante.

2017an eskaintza mantendu egin da, **301** plaza hain zuzen, **35** zentrotan banatuak eta guztiak foru finantzaketa dute.

En el año **2017** la oferta se mantiene en **301** plazas de financiación foral distribuidas en **35** centros.


Era berean, **6** plaza erabiltzen dira desgaitasuneko zentro espezializatuetan.

Asimismo, se están utilizando **6** plazas en centros especializados de discapacidad.

Erakunde kudeatzaileei dagokienez, kudeatutako plaza honela banatuak daude.

En cuanto a las entidades gestoras, la distribución de plazas gestionadas es la siguiente.

G 138.-.- Adingabeentzako egoitzak Plazak. Entitate kudeatzailearen arabera / Residencias para menores. Plazas por entidad gestora



Hona, segidan, adingabeekin dauden pertsonen egoitza-zentroetako arreta-datu orokorrak. Memoria honen eranskinean datu zehatzagoak ageri dira.

A continuación se muestran los datos generales de atención en centros residenciales para personas con menores. En el anexo a la presente Memoria se ofrecen datos con mayor detalle.

Urtean zehar **853** adingabe artatu dira, horietatik %80 mutilak. Benetako egonaldiari erreparatuta, hau da, 2017ko 365 egunetan arreta jaso dutenak kontuan hartuta, artatutako pertsonen kopuru baliokidea **295** izango litzateke.

A lo largo del año se ha atendido a **853** personas menores, el 80% varones. Si tenemos en cuenta la estancia efectiva, es decir, aquellas personas que han tenido atención los 365 días de 2017, el número de personas equivalentes atendidas es de **295**.

2017ko abenduaren 31n zerbitzu honetan **286** adingabe artatu ziren, honela banaturik.

A 31-12-2017 había **286** personas menores atendidas, con la distribución que se muestra a continuación.

T 75.- Adingabeentzako egoitzak. Artatutako pertsonak adin tarteka /Residencias para personas menores. Personas atendidas por tramo de edad


Adin tartea/ Tramo de edad	G/H	E/M	Guztira/ Total
0-7	12	10	22
8-11	22	14	36
12-14	45	28	73
15-17	102	48	150
>18	2	3	5
Guztira/Total	183	103	286

Adinari erreparatuta, **15-17 urteko** tartea gailentzen da (%52), eta adin-tarte horretan artatutako pertsonen % 68 mutilak dira. Hartutako en batez besteko adina 14 urtekoa zen.

Eman zaien arreta motari dagokionez, esan behar da **%62** oinarritzko programan artatu direla.

Urtean zehar **838** alta eta **839** baja izan dira. Zentroetan gertatu diren bajen arrazoiei dagokionez, **57%** borondatezko bajak izan dira, UBAko larrialdiko harrera zentroan eta BDAA (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) zerbitzuetan, hain zuzen.


T 76.- Adingabeentzako egoitzak. Artatutako pertsonak programaren arabera /Residencias para personas menores. Personas atendidas por programa (12-31)



2017ko abenduaren 31n okupazioa **%98koa** zen, eta txandaketa **2,8koa**.

Ondoko grafikoan ageri da sektorez sektore izan den txandaketa Ubako harrera-zentroa ez da kontutan izan egonaldi laburrek eragin

G 139.- Adingabeentzako egoitzak. Artatutako pertsonak sexuaren arabera / Residencias para personas menores. Personas atendidas por sexo




Atendiendo a la edad, la franja predominante es la de **15-17 años** (52%) y en esa franja de edad, el 68% de las personas atendidas son chicos. La edad media de las personas acogidas era de 14 años

Si tenemos en cuenta el tipo de atención, hay que destacar que el **62%** de las personas son atendidas en el programa básico.

A lo largo del año se han producido **838** altas y **839** bajas. Si se analizan las razones de las bajas producidas en centros, el **57%** de las mismas son bajas voluntarias que se producen en el centro de acogida de urgencia de UBA y por parte de MENAS (menores extranjeros no acompañados).

G 140.- Adingabeentzako egoitzak. Artatutako pertsonen bajen arrazoiak / Residencias para personas menores. Motivos de baja de personas atendidas



La ocupación a 31-12-2017 ha sido del **98%** y la rotación de **2,8**.

En el siguiente gráfico se muestra la rotación distribuida por sectores excluyendo el centro de acogida de urgencia Uba, ya que el dato de


handia dutelakoa eta txandaketak distortsioa izaten baitu.

Bukatzeko, artatutako pertsona kopuruaren bilakaera gorantz doa, batez ere, Ubako larrialdietako harrera zentroko erabiltzaileen %35eko iguera egon delako.


la rotación se distorsiona con las estancias breves de dicho centro.

Por último, la evolución del número de personas atendidas sigue una tendencia ascendente, debido sobre todo, al incremento de personas usuarias en el centro de acogida de urgencia de Uba en un 35%.

G 141.- Adingabeentzako egoitzak. Rotazioa/ Residencias para personas menores. Índice de rotación



G 142.- Adingabeentzako egoitzak. Urtean artatutako pertsonak. Bilakaera / Residencias para personas menores. Personas atendidas durante el año. Evolución



2.2.5.3.- Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua

Familia harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzuaren zeregin orokorrak hauek dira:

- a) Familia-harrera sustatzea, herritar orori zuzendutako dibulgazio kanpainak eta familia hartzaileak biltzeko kanpainak eginez.
- b) Harrera-zerbitzua emateko familiak hautatzea, haur edo nerabe bat hartzeko aukera eskatu duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantziak baloratuz; hau da, neska, mutiko edo nerabearen premiak beteko direla bermatzeko egokia den, eta ezarritako legezko betekizunak betetzen dituen begiratzen da.
- c) Familia hartzaileen zerrenda eguneratua edukitzea.
- d) Familia-harrerari buruzko informazioa ematea: prozedura, harrera gauzatzeko era eta harrera horen ondorioak edo eragina.
- e) Eta familia-harrera formalizatua daukaten haurrei eta nerabeei berariaz zuzendutako beste zeregin batzuk:
- f) Jada eratuak dauden familia-harrerak aldika-aldika ikuskatzea, hartutako haur edo nerabearen premiei eta lehentasunezko interesari egokitzen zaizkien egiaztatzeke.

2.2.5.3.- Servicio de promoción y apoyo técnico al acogimiento familiar

El servicio de promoción y apoyo técnico al acogimiento familiar desarrolla las siguientes funciones generales:

- a) Promover el acogimiento familiar mediante campañas divulgativas y de captación de familias acogedoras dirigidas a la población en general.
- b) Seleccionar familias candidatas al acogimiento mediante la valoración de las circunstancias que concurren en las personas o unidades familiares que soliciten acoger a un niño, niña o adolescente con vistas a determinar su adecuación para garantizar la cobertura de las necesidades del niño, niña o adolescente y el cumplimiento de las obligaciones legales establecidas.
- c) Mantener una lista actualizada de familias acogedoras.
- d) Informar sobre el acogimiento familiar: el procedimiento, el ejercicio del acogimiento y sus consecuencias o impacto.
- e) Y otras específicamente dirigidas a niños, niñas y adolescentes para los que se ha formalizado un acogimiento familiar:
- f) Supervisar periódicamente los acogimientos familiares constituidos, a fin de determinar si se desarrollan ajustándose a las necesidades y al interés superior del niño, niña o adolescente acogida

g) Familia-harrerari lotutako gastuak konpentsatzeko diru-laguntzak izapidetzea

h) a) Familia biologikoari laguntzea

g) Tramitar ayudas económicas de compensación de los gastos asociados al acogimiento familiar.

h) Apoyar a la familia biológica

Familia-harrera babes egokia izan daitekeela iritzi zaien adingabeei zuzendutako zerbitzua da, bai administrazioak edo epaileak hala erabki duenean, edo bai, arrazoi larriak direla tarteko, adingabeak bere borondatez zaintza hori eskatu duelako. Zerbitzu honetan sar daitezke, halaber, haur edo nerabe bat hartu nahi duten eta kasuan kasuko egokitasun baldintzak betetzen dituzten pertsonak, familia-unitateak edota elkarbizitza-unitateak.

2017ko abenduan, **349** neska-mutiko zeuden familia-harreran. Programa honek gorabehera handiak izaten ditu, zeren eta batez ere adin-nagusitasunak eta modalitate aldaketak alta eta baja ugari eragiten baitute.


Urtarrilaren 1ean **348** adingabe zeuden artatuak; 100 alta eta 99 baja eman dira, honako arrazoi hauek tarteko:

La población destinataria son aquellas personas menores de edad para las que se considere que el acogimiento familiar es una alternativa de protección adecuada, tanto si responde a una decisión administrativa o judicial, como a una solicitud de guarda voluntaria por motivos graves. Por otro lado, las personas o unidades familiares o convivenciales que deseen acoger a un niño, niña o adolescente y que cumplan los requisitos de adecuación correspondientes


En diciembre de 2017, había **349** niños y niñas en acogimiento familiar. Este programa está sometido a una gran variabilidad interna, de altas y bajas fundamentalmente por mayoría de edad y cambio de modalidad.

A 1 de enero se encontraban atendidas **348** personas menores de edad y se han producido 100 altas y 99 bajas, por los siguientes motivos:

G 143.-Famili harrera. Altak / Acogimiento familiar. Altas



G 144.- Famili harrera. Bajak / Acogimiento familiar. Bajas




Harrera horiek haurren ingurunean bertan egin daitezke; hau da, gerta liteke harrera hori familia zabaleko norbaitek egitea, aitona-amonek edo osaba-izebek, normalean; edota familia biologikoarekin zerikusirik ez duten pertsonak, neska-mutikoak etxean borondatez hartzeko prest dauden pertsonak, nahiz eta adingabe horiekin aldezturik inolako loturarik ez izan.

Los acogimientos se pueden realizar en el propio entorno del niño o niña, esto es, que la acogida la realice algún miembro de la familia extensa, normalmente abuelos o tíos, o se puede realizar por personas ajenas a la familia biológica que se prestan voluntariamente a acoger en su domicilio a niños y niñas con los que previamente no tenían ningún tipo de vínculo.


Adinari dagokionez, hartutako nezka-mutikoen adina **9,9** urte da batez beste.

En cuanto a la edad, la media de los niños y niñas acogidos es de **9,9** años.

G 145.- Famili harrera .Mota / Acogimiento familiar. Tipo



G 146.- Famili harrera .Adin tartea / Acogimiento familiar . Rango edad



Abenduaren 31n 306 familia hartzaile zeuden.

A 31-12 había 306 familias acogedoras.

2017. urtean zehar borondatezko familiatan larrialdiko harrera egiteko **46** eskaera artatu dira.

A lo largo de 2017 se han atendido **46** solicitudes de acogida de urgencia en familia voluntaria.


Familia-harrera espezializatuan, hau da, adingabeak ordainsari baten truke eta dedikazio osoz hartzen dituzten pertsonak gauzatzen duten zerbitzuan, **18** neska-mutiko artatu dira. Zerbitzu horretan beharakada nabarmena gertatu da, izan ere, dituen forma juridikoen inguruko zalantzak argitu arte alta gehiagorik ez egitea erabaki baita.

En cuanto al **acogimiento familiar especializado**, es decir, aquel desarrollado por personas que se dedican de forma remunerada y con dedicación plena a acoger personas menores de edad, se han acogido **18** niños y niñas. Se ha producido un fuerte descenso ya que no se han realizado más altas hasta que se puedan solventar las dudas relacionadas con las formas jurídicas del mismo.

Azkenik, hona hartutako nezka-mutikoen familia-harreraren bilakaera.

Por último, a continuación se muestra la evolución del número de niños y niñas en acogimiento familiar.

G 147.- Famili harrera . Bilakaera / Acogimiento familiar. Evolución



2.2.5.4.- Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua

Adozioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzuaren zeregin orokorrak honako hauek dira:

- a) Familia-harrera sustatzea, herritar orori zuzendutako dibulgazio kanpainak eta familia hartzaileak biltzeko kanpainak eginez.
- b) Harrera-zerbitzua emateko familiak hautatzea, haur edo nerabe bat hartzeko aukera eskatu duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantziak baloratzuz; hau da, neska, mutiko edo nerabearen premiak beteko direla bermatzeko egokia den, eta ezarritako legezko betekizunak betetzen dituen begiratzen da.
- c) Familia hartzaileen zerrenda eguneratua edukitzea.
- d) Familia-harrerari buruzko informazioa ematea.

Eta familia-harrera formalizatua daukaten haurrei eta nerabeei berariaz zuzendutako beste zeregin batzuk:

- a) Familia hartzaileei laguntza ematea, bai bere gain hartu dituzten zereginak nola bete aholkatuz.

2.2.5.4.- Servicio de promoción y apoyo técnico a la adopción

El servicio de promoción y apoyo técnico a la adopción desarrolla las siguientes funciones generales:

- a) Promover la adopción mediante campañas divulgativas y de captación de familias adoptantes dirigidas a la población en general, en particular de niños y niñas con necesidades especiales.
- b) Seleccionar familias candidatas a la adopción mediante la valoración de las circunstancias que concurren en las personas o unidades familiares que soliciten adoptar a un niño, niña o adolescente con vistas a determinar su idoneidad para garantizar la cobertura de las necesidades del niño, niña o adolescente en el cumplimiento de las obligaciones legales establecidas.
- c) Mantener una lista actualizada de familias adoptantes.
- d) Informar sobre la adopción.

Y otras específicamente dirigidas a niños, niñas o adolescentes para los que se ha formalizado una adopción:

- a) Apoyar a las familias adoptantes para asesorarles a lo largo del procedimiento de adopción.

b) Jada eratuak dauden familia-harrerak aldika-aldika ikuskatzea, hartutako haur edo nerabearen premiei eta lehentasunezko interesari egokitzen zaizkien egiaztatzeko.

c) Familia biologikoa bilaketaren harrerari lotutako gastuak konpentsatzeko diru-laguntzak izapidetzea.

d) Familia biologikoari laguntzea

b) Supervisar periódicamente las adopciones familiares constituidas, a fin de determinar si se desarrollan ajustándose a las necesidades y al interés superior del niño, niña o adolescente adoptada.

c) Tramitar ayudas económicas de compensación de los gastos asociados al acogimiento familiar.

d) Apoyar a la familia biológica.

Estatuko haurrak adoptatzeko 10 eskaintza izan dira, aurreko urtean baino 11 gutxiago.

El número de ofrecimientos para **adopción nacional** ha sido de **10**, 11 menos que el año pasado.

2017an **5** adopzio egin dira, aurreko urtean baino 5 gehiago.

En 2017, se han constituido **5** adopciones, 5 menos que el año pasado.


Nazioarteko adopzioei dagokienez, 6 eskaera izan dira, 2016an baino 5 gutxiago, eta 11 adopzio egin dira, 2016an baino 5 gehiago.

En cuanto a la **adopción internacional**, ha habido 6 solicitudes, 1 menos que en 2016 y se han constituido 11 adopciones, 5 más que en 2016.


Nazioarteko adopzioan hartu diren haur gehienen jatorria Txinak, Hungariak eta India dira.

El origen de niños y niñas adoptados en adopción internacional es mayormente de China, Hungría y India.


G 148.- Eratutako adopzioak / Adopciones constituidas



G 149.- Adopzioa. Jatorriaren arabera /Adopción. Por origen



G 150.- Adopzioa. Adinaren arabera/Adopción. Por edad



2.2.5.5.- Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak

Familian nahiz gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzuen xedea beren seme-alabak hezteko arazo larriak dituzten familiak dira, babesgabezia gertatzeko arrisku handia erakusten duten familiak. Zerbitzu hau erabiltzen da, halaber, familiarik banatzeko legezko neurria hartugatik bidezkotzat jotzen denean bai familiarekin eta bai adopzioan hartutako haurrekin lanean jarraitzea, egindako kaltea konpontzeko eta haurra bere etxera itzuli ahal izateko, baldintza egokitan hezi eta gizarteratuko den moduan.

2017an honako programak gauzatu dira:

Trebatu: Familiaren barruan tratu txarrak edota haur-abandono arazoak dituzten familiei zuzendutako programa. 2016an **403** kasu artatu dira, 2016ean baino 2 gehiago; bestetik, inplikaturako adingabeak **628** izan dira, 2016ean baino 2 gutxiago.

Bideratu: Ikertzeko, ebaluatzeko eta esku-hartze terapeutikoa egiteko programa da, adingabeek tratu txarra jasaten dutenean edota sexu-abusuak daudenean. 2017an **169** kasu artatu dira, 2016ean baino 34 gehiago; bestetik, inplikaturako adingabeak **225** izan dira, 2016ean baino 38 gehiago.

Garatu: Babesgabezia sozial eta familiar larria detektatu zaien, eta harremanak ezartzeko nahiz egokitzapen pertsonal eta soziala lortzeko arazoak dituzten adingabeei zuzendutako diagnostiko eta tratamendu psikoterapeutiko gisa eratua. 2017an **747** kasu artatu dira, 2016ean baino 27 gutxiago; bestetik, inplikaturako adingabeak **835** izan dira, 2016ean baino 15 gutxiago.

2.2.5.5.- Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial con familias

Los servicios de intervención familiar y socioeducativa se dirigen a familias que experimentan dificultades graves para la educación de sus hijos e hijas y en los que se produce una situación de alto riesgo de desamparo. También se utilizan en aquellos casos en que, habiéndose adoptado una medida legal de separación, se considera oportuno trabajar con la familia y el niño o niña acogido para reparar el daño y realizar la vuelta al domicilio familiar en las adecuadas condiciones de crianza y socialización.

En 2017 se han llevado a cabo los siguientes programas:

Trebatu: Programa dirigido a familias con problemas de maltrato y/o abandono infantil intrafamiliar. En 2017, se han atendido **403** casos, 2 más que en 2016 y a **628** menores implicados, 2 menos que en 2016.

Bideratu: Es un programa de investigación, evaluación e intervención terapéutica en situaciones de maltrato y/o abuso sexual a personas menores de edad. En 2017, se han atendido **169** casos, 34 más que en 2016 y a **225** menores implicados, 38 más que en 2016.

Garatu: Se configura como un recurso de diagnóstico y tratamiento psicoterapéutico dirigido a personas menores en las que se ha detectado desprotección social y familiar graves que presentan problemas relacionales y de adaptación personal y social. En 2017, se han atendido **747** casos, 27 menos que en 2016 y a **835** menores implicados, 15 menos que en 2016.

Jarraipen programa: Arrisku-egoerei jarraipen bat egin beharrak bultzatutako programa da; hau da, Foru Adundiak egoera baloratu ondoren, ezen esku-hartzerik ez dela behar erakusten duten baina, aldi berean, erne egotea eta jarraipen bat egitea eskatzen duten arrisku-egoerei jarraipena egiteko programa, berehala esku hartu ahal izateko baldin eta arrisku-adierazleren batek okerrera egiten badu. 2017an **82** kasu artatu dira, 2016ean bezala; bestetik, inplikaturako adingabeak **132** izan dira, 2016ean baino 8 gehiago.

Safecare: Ebidentzian oinarritutako programa da, hezkuntza izaerakoa, etxean kokatua, eta haurren babesgabezia detektatu zaien familiei zuzendua. 2016an **5** kasu artatu dira, 2017ean baino 4 gutxiago; bestetik, inplikaturako adingabeak **7** izan dira, 2016ean baino 8 gutxiago.

Incredible Years: Ebidentzian oinarritutako programa da, esku-hartze goiztiarrekoa, jokabide-arazoei aurre hartzera eta gaitasun sozial eta emozionala sustatzera bideratua. 2017an **12** kasu artatu dira, 2016ean baino 10 gutxiago; bestetik, inplikaturako adingabeak **4** izan dira, 2016ean baino 14 gutxiago.

Aipatu behar dago, 1.196 ume eta nerabe desberdin zirela programaren batean parte hartu dutenak, ume berak urtean zehar programa desberdinetan parte har dezakeelako. Ondoko grafikoa ikus daiteke zerbitzuaren bilakaera.


Programa de seguimiento: Es un servicio que se establece para cubrir la necesidad de realizar un seguimiento de situaciones de riesgo que, habiendo sido valoradas por Diputación Foral, se ha considerado que no procedía realizar ningún tipo de intervención, pero al mismo tiempo se hacía necesario mantener una actitud de alerta y seguimiento par poder intervenir con rapidez si algunos de los indicadores de riesgo se deterioran. En 2017, se han atendido **82** casos, igual que en 2016 y a **132** menores implicados, 8 más que en 2016.

Safecare: Programa basado en la evidencia, de carácter educativo, con base en el domicilio, destinado a familias en las que se ha observado situaciones de desprotección infantil. En 2017, se han atendido **5** casos, 4 casos menos que en 2016, y a **7** menores implicados, 8 menos que en 2016.


Incredible Years: Programa basado en la evidencia, de intervención temprana, para la prevención de problemas de conducta y para la promoción de la competencia social y emocional. En 2017, se han atendido **12** casos, 10 menos que en 2016, y a **4** menores implicados, 14 menos que en 2016.

La cifra real de niños y niñas diferentes implicadas en 2017 es de 1.196, ya que un niño, niña o adolescente puede pasar a lo largo del año por diferentes programas. La evolución del servicio se muestra en el siguiente gráfico.

G 151.- Gora-beherak eskuhartze psikosozialeko mila adingabeako kasuen kopuruan eskualdeka/Incidencia de personas atendidas en intervención psicosocial por mil menores por comarcas.



G 152.- Eskuhartze psikosoziala. Adin txikiko pertsona eta kasu kopuaren bilakaera /Intervención psicosocial. Evolución del número de menores y casos



2.2.6.- GIZARTERATZEA

2017an, Gizarteratzearen arloan eman den berrikuntza nagusia **“Elkar-EKIN” 2016-2020 Gizarteratze Plana** abian jartzea izan da. Plan honen helburua da Gizarteratzea sustatzea eta gizarte-bazterketaren inguruan politika sektorial ezberdinak antolatzea; eta horretarako, gizarteratzearen helburua modu eraginkorrean landuko duten estrategiak bultzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritzapean baina Gipuzkoako eragile eta erakundeen partaidetzarekin.

2017an planaren jarduera nagusietatik honako hauek azpimarratzen ditugu:

- Bazterketa balioetsi eta orientatzeko zerbitzua martxan jarri da. Martxotik aurrera, 116 balioespen eskaera izan dira gizarte bazterketa balioesteko tresna teknikoan oinarrituta. % 1,96 gizarte bazterketa larritzat jo da, % 23,56 gizarte bazterketa moderatutzat, % 43,14 gizarte bazterketa arintzat eta % 11,76 gizarte bazterketa arriskuko egoeratzat.
- Bazterketa egoeran dauden gaixotasun mentala dutenentzako egoitza-arreta espezializatuaren unitatea berria abian jarri da.

2.2.6.- INCLUSIÓN

Durante el año 2017 la novedad principal del área de Inclusión social ha sido la puesta en marcha del **Plan de Inclusión Social 2016-2020 “Elkar-EKIN”**, que tiene como objetivo promover la Inclusión Social y organizar las diferentes políticas sectoriales en torno a la exclusión social, impulsando nuevas estrategias que aborden de manera eficaz y eficiente el objetivo de la inclusión social, con el liderazgo de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la participación de agentes e instituciones de la sociedad guipuzcoana.

Entre las principales actuaciones del Plan en 2017 destacamos:

- Se ha puesto en marcha el servicio de valoración y orientación de la exclusión. De marzo en adelante se han realizado 116 solicitudes de valoración fundamentadas en el uso del instrumento técnico de valoración de la exclusión social, siendo un 1,96% determinadas como exclusión social grave, un 23,56% exclusión social moderada, un 43,14% exclusión social leve y un 11,76% situaciones de riesgo de exclusión social.
- Se ha puesto en marcha una nueva unidad de atención residencial especializada en atención a las personas con enfermedad mental en situación de exclusión

- Bestetik, jada martxan dira Aterpe gaueko harrera zentroa hobetzeko lanak eta zentro okupazioa letara sartzeko prozedura zehaztekoak.
- “Housing First” proiektua abiarazi da, oinarri esperimental duena, RAIS EUSKADI Fundazioarekin hitzarmen bat sinatuta. Lehenengo fase batean Donostiako Udalarekin lankidetzan hasi da, egoitza bazterketa egoeran dauden 5 pertsonari etxebizitza emanda. Bertan, etxebizitza bera oinarri hartuta, pertsona horiei aukerak eskaintzen zaizkie inguruarekiko harremana berreskuratzeko, hartara gizarte sare egoki bat eraiki dezaten, bazterketa egoeratik ateratzeko.
- “Sendotu Aldiberean” proiektua abiarazi da. Proiektu honek helburu du lan merkatutik aldenduen dauden pertsonen merkatutarako sarbidea izaten eragozten dieten oztopoak kentzea. Aukera ematen du lan egiteko berdintasuna, enplegugarritasuna eta gizarteratzea sustatzeko. 404 onuradun.
- Ertzaintzaren lankidetzarekin eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuarekin lankidetzan gauzatzen ari da **“Elkarbizitza Helburu”** proiektua, aniztasunean elkarrekin bizitzeko proiektua da, eta helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapeko gazteetan erradikalismo islamikoa prebenitzea.
- Por otro lado, se ha comenzado a trabajar en la mejora del centro de atención nocturna Aterpe y en la definición del procedimiento de accesos a los centros ocupacionales.
- Se ha puesto en marcha el proyecto “Housing First” con base experimental, mediante un convenio con la Fundación RAIS EUSKADI y la colaboración en esta primera fase del ayuntamiento de Donostia mediante la provisión de viviendas para 5 personas en situación de exclusión residencial, donde utilizando como base la propia vivienda, poder ofrecer a las personas un espacio de oportunidades para recuperar su relación con el entorno y de este modo construir una adecuada red social de apoyo que les permita salir de su situación de exclusión.
- Se ha puesto en marcha el proyecto “Sendotu Aldiberean” cuyo objetivo es eliminar los obstáculos que impiden a las personas más alejadas del mercado laboral poder acceder a él, permite trabajar para fomentar la igualdad, así como la empleabilidad y la inclusión social. 404 personas beneficiarias.
- Se está trabajando en colaboración con la Ertzaintza y de forma conjunta con el Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia, el proyecto **“Elkarbizitza Helburu”** mediante el cual se pretende prevenir el radicalismo islámico en los jóvenes tutelados por Diputación Foral de Gipuzkoa.



- Egoitza-zentroetan esperientzia aitzindari bat egin da gizarte-bazterketa baloratzeko tresna aplikatuz; eta horretarako, Deustuko Unibertsitatean prozesu parte-hartzaile bat garatu da oinarrizko gizarte zerbitzuekin.
- En los centros residenciales, se ha realizado una experiencia piloto en la aplicación de la herramienta de valoración de la exclusión social, para lo que se ha desarrollado el proceso participativo con los servicios sociales de base en la Universidad de Deusto.

2.2.6.1.- Bazterkeria eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak

Bazterkeria eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak maila pertsonalean, gizarte arloan eta harremanen arloan narriadura larriak dituzten eta bazterketa egoeran dauden pertsonen bizi-egoera eskaintzera bideratutako elkarbizitza zentroak dira; eta horietan, intentsitate ertaineko edo handiko laguntzak egiten dira, gizarteratzeko esku-hartzeak egiten ahal izateko.

2017. urtean zehar, **927** pertsona artatu dira bazterkeria eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan, **731** gizonezko eta **196** emakume, hau da, 2016ean baino %2 gutxiago. Badira urtean zehar egoitza-baliabide ezberdinetan egoten diren pertsonak, eta hori dela eta, 2017an guztira **802** pertsona ezberdin artatu dira.

Hau da artatutako pertsonen profila:


2.2.6.1.- Centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación

Los centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación, son centros de convivencia destinados a ofrecer a personas en situación de exclusión con graves deterioros de carácter personal, social y relacional, un servicio de alojamiento con apoyos de media o alta intensidad, para realizar intervenciones orientadas a la inclusión social.

A lo largo de 2017 se han atendido en los distintos centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación a **927** personas, **731** hombres y **196** mujeres, un 2% menos respecto a 2016. Hay personas que a lo largo del año están en distintos recursos residenciales, por lo que el total de personas diferentes atendidas en 2017 es de **802**.

La tipología de personas atendidas se muestra a continuación.

G 153.- Gizarteratzea. Egoitzak. Motaren arabera/Inserción. Residencias. En función de la tipología



2.2.6.1.A.- Egoera kronifikatu egoera dauden pertsonentzako egoitza-zentroak

Egoera kronifikatu egoera dauden pertsonentzako egoitza-zentroak egoera kronifikatua eta narriadura pertsonala duten, eta egonaldi luzeko zerbitzua behar duten pertsonentzako egoitza zentroak dira, gizarteratzeko ikuspegia eskuhartze-erritmo lasaiarekin uztartzen dutenak.

2017. urtean eskaintza igo egin da, **5** plaza gehitu dira, "HOUsing First" programa aurrera eramateko, bazterkeri zorrotzean daudenei etxebizitza bermatzeko. Guztira **44** plaza eskaintzen dira eta guztiak foru finantzaketa dute.

Hona, segidan, egoera kronifikatua duten pertsonen egoitza-zentroetako arreta-datu orokorrak. Memoria honen eranskinean datu zehatzagoak ageri dira.

2017. urtean zehar **62** pertsona artatu dira, horietatik **% 14** emakumeak.

2017ko abenduaren 31n **44** pertsona ziren arreta jasotzen ari zirenak, horietatik **%16** emakumeak, honako honela banatuta.

T 77.- Gizarteratzea. Egoera kronifikatua. Egoitzak Artatutako pertsonak / Inserción. Situación cronificada. Residencias. Personas atendidas

Zentro mota/ Tipo de centro	Artatutako pertsonak 12/31n/Personas atendidas a 31/12			Plazak/ Plazas	Okupazioa/ Ocupación
	G/H	E/M	Guztira /Total		
Foru Aldundiak finantziatuak/ De financiación foral	37	7	44	44	100,0%
Guztira/Total	37	7	44	44	100,0%

2.2.6.1.A.- Centros residenciales para personas con una situación cronificada

Los centros residenciales para personas con una situación cronificada son centros residenciales para personas con una situación cronificada y un deterioro personal que precisan un servicio de larga estancia con un enfoque que combine una visión de inclusión social, con un ritmo de intervención pausado.


En el año 2017, la oferta se ha incrementado en **5**, del programa "Housing First", para garantizar una vivienda a personas con exclusión severa. En total hay **44** plazas, todas ellas de financiación foral.

A continuación se muestran los datos generales de atención en centros residenciales para personas con una situación cronificada. En el anexo a la presente Memoria se ofrecen datos con mayor detalle.

A lo largo de 2017 se ha atendido a **62** personas, de las cuales un **14%** eran mujeres.

A 31-12-2017 se prestaba atención a **44** personas, un **16%** de mujeres, de acuerdo a la distribución que se muestra a continuación.

G 154.- Gizarteratzea. Egoera kronifikatua. Egoitzak. Artatutakoak sexuaren arabera / Inserción. Situación cronificada. Personas atendidas por sexo




T 78.- Gizarteratzea. Egoera kronifikatua. Artatutakoak adin tartearen arabera/ Inserción. Situación cronificada.

Personas atendidas por rango de edad

Adin tartea/ Rango edad	G/H	E/M	Guztira/ Total
40-44	5	2	7
45-49	8	2	10
50-54	13	2	15
55-59	0	8	8
60-64	3	1	4
Guztira/Total	29	15	44

G 155.- Gizarteratzea. Egoera kronifikatua. Artatutakoak adin tartearen arabera/ Inserción. Situación cronificada. Personas atendidas por rango de edad



Zentro hauetan artatutako pertsonen adina **50,5** urte da batez beste, gizarteratzeko gainerako baliabideetan baino askoz handiagoa (29,8 laguntzak dituzten etxebizitzetan eta 40,8 egoitzetan).

La edad media de las personas atendidas en estos centros es de **50,5** años, muy superior al resto de los recursos de inserción (29,8 en viviendas con apoyos y 40,8 en residencias).

Benetako egonaldari erreparatuta, hau da, 2017ko 365 egunetan arreta jaso dutenak kontuan hartuta, artatutako pertsonen kopuru baliokidea **40** izango litzateke.

Si tenemos en cuenta la estancia efectiva, es decir, aquellas personas que han tenido atención los 365 días de 2017, el número de personas equivalentes atendidas sería de **40**.


2017ko abenduaren 31n okupazioa **%100**ekoa zen, eta urteko txandaketa **%1,41**koa.

La ocupación a 31-12-2017 ha sido del **100%** y la rotación anual de **1,41**.

Bukatzeko, ondoko grafikoa ageri da artatutako pertsona kopuruaren bilakaera.

Por último, en el siguiente gráfico se muestra la evolución del número de personas atendidas.

G 156 . Gizarteratzea. Egoera kronifikatua. Egoitzak -Artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/ Inserción. Situación cronificada
Evolución del número de personas atendidas (12-31)



2.2.6.1.B.- Gizarteratzeko etxebizitzak laguntzekin

Gizarteratzeko etxebizitzak laguntzekin, egonaldi ertain edo luzeko egoitza zentroak dira, erabiltzaileen gaitasun eta trebezia pertsonalak eta harreman arlokoak hobetzeko laguntza eskaintzen dutenak, pertsona horiek gizarteratu daitezzen eta progresiboki bizimodu normala egin dezaten

Etxebizitza horien helburua da, bizimodua erkidegoan egiteko aukera ahalbidetzea gabezia psikosozialak dituzten eta intentsitate ertaineko laguntza psikosoziala behar duten pertsonen

2017. urtean eskaintza bera mantendu da, **211** plaza foru finantzaketa dutenak.

